

INFORMATZEN

2009-06-15, 18.zbk

NAZIO BAT GARA ZAZPIAKBATAUZOLANEAN Ekainak 21 Jaialdia Lezo eta Oiartzunen

Zuberoaren garapena eta Euskal Herriko lurralde ezberdinen arteko hartumana sustatzeko bide sakonak garatzen ari dira. Abeltzaintza eta laborantza sektoreak horien lekuko argia dira. Baina sektore horietatik harago, kultur mailan ere bide berriak eraikitzen hasiak gara. Nazio Eztatbaida Guneak eginiko zubi lanaren ondotik, Atharratzeko ikastolarekin auzolan berria garatu da.

Martxoaren 14an, Lezo eta Oiartzungo udalak eta Atharratzeko ikastolak hitzarmen bat sinatu zuten. Bertan, bi udalek 18.000€ko diru ekarpena egiteko konpromisoa hartu zuten eta Atharratzeko ikastolako guraso eta irakasleek aldiz, jaialdi bat egitekoa.

Atharratzeko Basabe ikastola, Seaskaren barne Zuberoan dauden bi ikastoletako bat da eta 30 urte bete berri ditu. 10 ikasle izatetik 21 izatera igaro dira eta berri pozgarria izanik ere, zailtasun eta arazoak sortu dizkie, baliabide pertsonal nahiz material faltagatik. Egoera horri aurre egiteko erabiliko dute udaletatik jasotako laguntza ekonomikoa.

Ez da ordea diru ekarpen huts batean oinarritutako hitzarmena. Zuberoaren inguruko ezagupena eta harremana sustatzea du helburu eta hori indartzeko asmoz egun osoko jaialdia antolatu dute Ekainaren 21erako Lezo eta Oiartzunen.

Hurbil zaitez!

Karine Chimix Basabe ikastolako irakaslea, Haritz Salaberria Lezoko alkatea, Idurre Bera Oiartzungo kultura zinegotzia eta Monique Bocchi Basabe ikastolako Guraso Elkarteko kidea jaialdiaren aurkezpenean.



ZUBEROAK EUSKAL HERRIA BEHAR DU EUSKAL HERRIAK ZUBEROA BEHAR DU

EKAINAK 21, igandea

- 11:30 LEZOko plazan.**
Zuberoako dantzari, musikari eta abeslarietako ongietorria.
Jarraian, Muxika dantza taldeko kideekin kalejira.
- 12:00 LEZOko plazan.**
Xuberoako abeslari, dantzari eta musikariekiko emanaldia.
- 13:30 OIARTZUNgo plazan.**
Ongietorria Zuberoako ordezkarietako dantzaz eta kantuz.
- 14:30 OIARTZUNgo Haurtzaro Ikastolan.**
Herri bazkaria Zuberoako musikari eta abeslarietako.
- 18:00 OIARTZUNgo plazan.**
Zuberoatik etorritako dantzari, musikari eta abeslarietako emanaldi nagusia.

Mugak
gaituz,
zazpiak bat,
elkarri
begira

bazkari herrikoia
txartelak salgai:

Amazkar
Elizalde Eskola
Haurtzaro Ikastola
Landare
Lezo Herri Eskola
Lezoko Udaleko kultura bulegoa
Oiartzungo Udaleko kultura bulegoa
Pasaia Lezo Lizeoa Ikastola
Tiñelu

MUSIKARIAK

ABESLARIAK

DANTZARIAK

ANTOLATZAILEAK:



Lezoko Unibertsitateko Udala



Oiartzungo Udala

Basabürüko Ikastola



SUSTATZAILEA:



nazio
etabaida
gunea

Nazio Etabaida Gunea (0034)943 260856
idazkaritza@etabaidagunea.org
www.naziogunea.net